


AITA KURTZEKO



1

Mañariatik Arratiara
bidean Aita Kurtzeko,
gizaldietan emen daukagu
alderdi biak zaintzeko.

2

“Aita Kurtzeko” izen gozoa
aintxinatik ezaguna,
Berak gurutzan bizia emon
ta guk lortu osasuna.

3

Jainko aundia, gu salbatzeko,
gizon txikitxo egina,
ai, au jakinda, Berarentzat
esker oneko bagina!

4

Arerioen gorrotoari
parkamenagaz erantzun,
kristau izena daroagunok
au ondo ikasi daigun.

5

Alkarri lagun egitearren
sufritzen dogun gurutza,
mingarria da, baina ongarri,
ez da sufrimentu utsa.

6

Gure pekatu danen ordainez
Kristok emon dau odola,
ondo ikasi bearra dogu
Kalbarioko eskola.

7

Gorputza untzez josita dauka
baina biotza zabalik,
guk aragia libre, ai baina
biotza preso makalik.

8

Kristok bizia emonaz deusku

erakutsi maitasuna,
batzuen ustez, bizia kenduz
agertzen da ontasuna.

9

Alguztiduna Kristo izanik,
beti da errukiorra,
Aita Kurtzekok kendu daiskula
gorrotoaren mozkorra.

10

Gurutz gainetik Aita Kurtzekok
emon deusku gaur dotrina:
kristau bagara, ondo beteten
egin daigun alegina.

11

Ezker-eskuman eukazan Kristok
lapur ona eta txarra,
bietatik zein garan bakotxak
dogu azertu bearra.

12

Bide bakar bat dogu, zerua
nai badogu irabazi,
ez da besterik, Aita Kurtzekok
deuskuna gaur irakatsi.

13

Aita Krutzeko, benetan zara
guretzat maitagarria!
Zuk maitasunez bizia emon
eta guk lortu barria.

14

Emen daukazuz zeure aurrean
Mañari ta Arratia,
orain arte lez, Zeuk gu zaintzea
da gure borondatia.

15

Zeuk lagundu ta zaintzen gaituzu
biziak ta ildakoak,
areik eta gu Zeuk egin gaizuz
Zeugaz zorionekoak.

16

Agur biotzez, Aita Kurtzeko,
gure gorengo Zaindari!
Orain ta beti zaindu egizuz
Arratia ta Mañari.

A. Martzel

